



Erakundeak zer egin dezakezue eskola-kiroleko lehiaketetan gorabeherak saihesteko?

5 EREMUTAN ESKU

¿Qué podéis hacer las entidades para evitar los incidentes en las competiciones de deporte escolar?

5 ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

Kirol entitateek 5 eremutan esku hartu dezakete

euren kirolari/kirol taldeek parte hartzen duten lehiaketetan hitzezko indarkeria eta lotsagabekeriak ezabatzeko

Eskola kirolek **hitzezko indarkeria eta lotsagabekeriak ezabatzea** bertan aritzen diren agente guztien egitekoa da, hau da, erakundeena, federazioena eta kirol entitateena.

Kirol entitateek (ikastetxeek, guraso elkarteek, kirol taldeek eta elkarteek...) zuzeneko lotura daukazue eskola kirolean, arlo guztietan, aritzen diren pertsonekin (kirolariak, teknikariak, arbitroak, ahaideak..), eta horregatik zuen lanak berebiziko garrantzia dauka horiek guztiek begirunez eta hezitzaile modura jokatzeko ziurtatzeko.

“Eskola kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa” dokumentuaren arabera **NAHITAEZ** egin beharrekoak ahaztu gabe (arbitroek beren petoa soinean eduki, protokoloaren berri eman familiei, arbitroei eta entitateko gainerako agenteei, etab.), dokumentu honetan azaltzen dizuegu zer egin dezakezuen zuen entitateak konpromisoa eduki dezan begirunearekin eta kiroltasunarekin. 5 eremutan esku hartu dezakezue, hain zuzen ere entitatean aritzen diren bost agente motekin (teknikariak, arbitroak, familiak, familien ordezkariak eta koordinatzaileak edo zuzendaritzakoak). Horretan denbora baino ez duzue eman behar, entitate bakoitzak bere ahalbideen eta lehentasunen arabera. Agente mota bakoitzeko bi ekintza proposatzen dira, bata erraz aplikatzeko modukoa eta bestea konpromiso handiagoa behar duena.



1

ENTRENATZAILEAK

Adierazi hezitzaile modura jardun behar dutela eta ziurtatu hala jarduten dutela

Entrenatzailearen jarrerak eta jokabideak entitatearen balioak bistaratzen dituzte. Gainera, haren jokabidea kirolarien eta beren ahaideen jokabidean islatzen da. Horregatik, begirunetsuak izan nahi badute eta beren balioak goraipatu nahi badituzte, entitateek lortu behar dute beren entrenatzaileen jokabidearen ardatza heziketa izatea eta arbitroei inolako protestarik ez egitea.

- ➔ **Ekintza erraza:** bakarka edo taldean bilduta, solasaldi batean entrenatzaileei entitatearen balioen berri ematea, jokabide batzuk ez direla onartuko adieraztea eta harmailetako protokoloa eta bertan zer egin behar duten azaltzea.
- ➔ **Konpromiso handiagoko ekintza:** jokabide oneko kodea onestea, entitatean ariko diren entrenatzaileek nahitaez sinatu beharrekoa lanean hasi aurretik.



2 ARBITROAK



Harmailetako protokoloa aplikatzen dutela ziurtatu behar duzue

Eskola kirolean badago tresna bat, harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa, aukera ematen duena ikusleen protesten, hitzeko indarkeriaren eta lotsagabekeriaren aurrean esku hartzeko. Arbitroen egitekoa eta ardura da protokolo hori aplikatzea halako jokabiderik ez gertatzeko. Beraz, lehiaketetan aritzen diren entitateek lortu behar dute arbitroek ez jasatea harmailetan kiroltasunaren aurkako jarrerarik eta halakoak gertatzen direnean protokoloa aktibatzea eta partidua bertan behera gelditzea, batez ere norberaren etxean jokatzen denean eta arbitroa izendatzen denean. Arbitroak sarritan adingabeak edo gazteak izaten dira, eta ez dute edukitzen horrelako egoerei aurre egiteko behar den nortasuna, ez eskarmentua; horregatik, funtsezkoa da entitateak, batez ere koordinatzailearen eta entrenatzaileen bitartez, protokoloa aktibatzeko eskatu ez ezik, horretarako laguntza ematea ere.

- ➔ **Ekintza erraza:** bakarka edo taldean bilduta, solasaldi batean protokoloa azaltzea: zer den, zer egin behar duten aplikatzen denean eta zein garrantzitsua den ondo aplikatzea.
- ➔ **Konpromiso handiagoko ekintza:** gainbegiratze aktiboa eta, gorabeheraren bat gertatzen denean, batez ere etxeko partiduetan, koordinatzaileak protokoloa aktibatzeko eskatzea.

3

FAMILIAK



Adierazi hezitzaile modura jardun behar dutela

Entitatearen ardura da taldekideen familiek modu egokian jokatzea. Taldekideen ahaideek argi eduki behar dute hasiera-hasieratik zein diren eskola kirolaren balioa, alde batetik, eta entitatearenak, bestetik, eta entitateek eskatu behar die balio horien arabera jokatu dezatela. Entitateak ez du jasan behar eskola kirolean ahaideak protestaka edo lotsagabekerietan aritzea; halakorik gertatuz gero, jokabidea gaitzetsi behar du eta, behar izanez gero, zehapena ezarri, argi uzteko ez daukala inolako tolerantziarekin horrelakoekin.

- ➔ **Ekintza erraza:** talde bakoitzean bilera bat egitea denboraldiaren hasieran familia guztiekin, entitatearen balioen berri emateko, harmailetan jokabide batzuk ez direla jasango adierazteko eta harmailetako protokoloa azaltzeko.
- ➔ **Konpromiso handiagoko ekintza:** jokabide oneko kodea onestea, familiek nahitaez sinatu beharrekoa umeak entitatean sartu aurretik.



4

FAMILIEN ORDEZKARIAK

Errespetua sustatzen lagundu dezaketen pertsonak aurkitu behar dituzue

Entitateak bertako pertsona guztien laguntza behar du eskola kirolean errespetu giroa sortzeko helburua betetzeko. Entitateko arduradunentzat zaila da talde guztien partidu guzti-guztiak kontrolatzea eta gainbegiratzea. Horregatik, talde bakoitzak bere familien ordezkaria eduki behar luke, taldekideen gurasoen artean errespetu giroa sortzen lagunduko duena eta, behar denean, partiduetan arbitroei lagunduko diena.

Ordezkar horiek entitatearen laguntzaileak izango dira eta, gainera, argi utziko dute entitateak errespetuaren alde egiten duela buru-belarri.

- **Ekintza erraza:** familien ordezkaria edukitzea entitateko talde guztietan.
- **Konpromiso handiagoko ekintza:** bakarka edo taldean bilduta, solasaldi batean protokoloa azaltzea ordezkariari (zer den, **zer egin behar duten aplikatzen denean** eta zein garrantzitsua den ondo aplikatzea), eta taldearen funtzionamendua ikuskatzeko kanal egokiak ezartzea.



5

KOORDINATZAILEAK, BABES ORDEZKARIAK EDO ZUZENDARITZAKOAK

Ez onartu inoren jokabide txarrik,
eta halakorik gertatzen denean, esku hartu

Pertsona horien esku dago entitatea errespetuarekin konprometituta egotea. Funtsezkoak dira horretarako. Entitatearen koordinatzaileen, babes ordezkarien eta zuzendaritzako kideen ardura da aurrean entitateko beste kolektiboetarako azaldu diren ekintzak bultzatzea; horrez gainera, funtsezko beste egiteko batzuk ere badauzkate: errespetua eta kiroltasuna nagusi diren giroa sortu behar dute entitatean, batetik, eta giro hori eta entitatearen balioak hondatzen dituzten gorabehera guztietan esku hartu behar dute azkar.

- ➔ **Ekintza erraza:** entitateko kirolariei, haien ahaideei, teknikariei edo beste kide batzuei zuzen jokatzeko eskatzea protestaka edo lotsagabekerietan aritzen diren guztietan, eta, behar denean, onetsitako zehapenak aplikatzea.
- ➔ **Konpromiso handiagoko ekintza:** entitatean kiroltasuna bultzatzea eta horretarako beste jarduketa batzuk egitea.



BALIABIDEAK

- ➔ **“Irainik ez, Kitto” kanpaina**
- ➔ **Eskola Kiroleko Harmailetan Errespetua Sustatzeko Protokoloa (testua)**
- ➔ **Eskola Kiroleko Harmailetan Errespetua Sustatzeko Protokoloa (familientzako bideoa)**
- ➔ **Eskola Kiroleko Harmailetan Errespetua Sustatzeko Protokoloa (epaileentzako bideoa)**
- ➔ **Familia ordezkariaren gida**
- ➔ **Dekalogoia – kartela**
- ➔ **Dekalogoia – esku orria**

5 ámbitos en los que pueden actuar las entidades deportivas

para evitar los incidentes y las faltas de respeto en las competiciones deportivas en las que participan sus equipos/deportistas

Erradicar la violencia verbal y las faltas de respeto en el deporte escolar es labor de todos los agentes que están involucrados en el mismo: instituciones, federaciones y entidades deportivas.

Las entidades deportivas (centros escolares, AMPAS, clubes y agrupaciones deportivas, etc.), como organizaciones que tienen relación directa con las personas que intervienen, de una forma u otra, en las competiciones de deporte escolar (deportistas, personal técnico, equipo arbitral, familias, etc.), tenéis un papel fundamental en asegurar un comportamiento respetuoso y educativo de las mismas.

Más allá de aquellas acciones de carácter **OBLIGATORIO** que establece el “Protocolo de Fomento del Respeto en las Gradass” (llevar puestos los petos de los equipos arbitrales, obligatoriedad de difusión del protocolo a familias, equipo arbitral y resto de agentes de la entidad, etc.), en el presente documento se presentan algunas acciones claras que podéis poner en marcha para conseguir que la vuestra sea una entidad comprometida con el respeto y la deportividad. Las acciones se enmarcan en 5 ámbitos, referidos a cinco diferentes agentes que pueden actuar en vuestra entidad (personal técnico, equipo arbitral, familias, persona delegada de familias y personas coordinadoras o directivas), y no requieren más que la inversión en tiempo que cada entidad opte por dedicarles, en función de sus posibilidades y prioridades. Se proponen dos acciones posibles por cada uno de los colectivos, una relativamente sencilla de poner en práctica y otra que requiere un mayor grado de compromiso.



1

ENTRENADORES Y ENTRENADORAS

Inculcadles un comportamiento educativo y velad por el mismo

La actitud y comportamiento de una o un entrenador expone a ojos de los demás los valores que trasmite una entidad. Su comportamiento, asimismo, tiende a reflejarse en el de sus deportistas y sus familiares. Por ello, es de vital importancia que una entidad que quiera identificarse ante los demás como respetuosa y desee ensalzar sus valores inculque y vele por que sus entrenadores y entrenadoras dispongan de un comportamiento educativo y de 0 protestas al equipo arbitral.

- ➔ **Acción sencilla:** realizar una charla grupal o individual con cada entrenador o entrenadora informando de los valores de la entidad y de los comportamientos que no serán tolerados, y, también, del protocolo de gradas y de sus funciones en el mismo.
- ➔ **Acción comprometida:** aprobar un código de buena conducta que sea firmado por las y los entrenadores de la entidad como paso previo para su pertenencia a la entidad.



2

ÁRBITROS Y ÁRBITRAS



Aseguraos de que aplican el protocolo de gradas

El deporte escolar dispone de una herramienta, el protocolo de fomento de respeto en las gradas, que posibilita actuar ante las protestas, la violencia verbal o las faltas de respeto por parte del público. Es labor y responsabilidad de la persona que arbitra un partido aplicar este protocolo e impedir este tipo de comportamientos. Por lo tanto, como entidad participante en la competición y, especialmente, cuando se actúa como entidad local que designa al árbitro o árbitra, se le ha de exigir que no tolere ningún tipo de actitud contraria a la deportividad en las gradas y que active el protocolo, deteniendo el partido ante este tipo de incidentes. Siendo en muchas ocasiones, personas menores o jóvenes, sin la personalidad o experiencia suficiente para enfrentar este tipo de situaciones, es fundamental que la entidad, a través de, principalmente, su coordinador o coordinadora y de sus entrenadores y entrenadoras, a la vez que les exija la activación del protocolo, les ofrezca su apoyo y colaboración en la aplicación del mismo.

- ➔ **Acción sencilla:** realizar una charla grupal o individual con cada árbitro o árbitra en la que explique el protocolo, sus funciones en el mismo y la relevancia de la aplicación del mismo.
- ➔ **Acción comprometida:** supervisión activa y, en su caso, solicitud de activación del protocolo por parte del coordinador o coordinadora ante cualquier mínimo incidente, especialmente, en aquellos partidos en los que se ejerce de local.

3

FAMILIAS



Inculcadles un comportamiento educativo

Es responsabilidad de la entidad el comportamiento de las familias que integran los equipos. Las familias han de tener claro desde el principio cuáles son los valores del deporte escolar en primera instancia y de la propia entidad, y ésta ha de exigirles un comportamiento alineado con los mismos. No debería tolerar la protesta o la falta de respeto en el deporte escolar, y en caso de que se produzca ha de ser censurada y, en su caso, sancionada, quedando claro la actitud de tolerancia 0 de la entidad.

- ➔ **Acción sencilla:** en cada equipo, realizar una reunión a principio de temporada con todas las familias en las que se informe de los valores de la entidad y los comportamientos que no serán tolerados, así como del protocolo de gradas y su funcionamiento.
- ➔ **Acción comprometida:** aprobar un código de buena conducta que sea firmado por las familias de la entidad como paso previo para la pertenencia de sus hijos/as a la misma.



4

PERSONA DELEGADA DE FAMILIAS

Buscad personas que os puedan echar una mano en el fomento del respeto

La entidad precisa de colaboración por parte de todas las personas que la integran en el objetivo y responsabilidad de velar por un clima respetuoso en el deporte escolar. Resulta complicado y fatigoso para las personas responsables de la entidad el controlar y supervisar todos y cada uno de los partidos o pruebas en los que participan sus equipos. Así, resulta conveniente la incorporación de la figura de persona delegada de familias en cada uno de los equipos que favorezca un clima de respeto entre los padres y madres del equipo y ayude al equipo arbitral del partido en caso de necesidad. De esta manera, se convierten en agentes colaboradores de la entidad y, por otra parte, su presencia refleja una apuesta clara de la entidad por el respeto.

- **Acción sencilla:** disponer de la figura de delegado o delegada de familias en todos y cada uno de los equipos de la entidad.
- **Acción comprometida:** realizar una charla grupal o individual con cada persona delegada de familia explicando el protocolo, **sus funciones en el mismo**, y la relevancia de su aplicación, así como establecer los canales oportunos para un seguimiento del funcionamiento del grupo.



5

PERSONAS COORDINADORAS, DELEGADAS DE PROTECCIÓN O DIRECTIVAS

No toleréis comportamientos inadecuados y actuad ante los mismos

Ser una entidad comprometida con el respeto depende de estas personas. Son las figuras clave. Más allá de la responsabilidad de las personas coordinadoras, delegadas de protección y directivas de la entidad de impulsar todas y cada una de las acciones que se han señalado previamente para los diferentes colectivos que integran la entidad, es fundamental que estas personas, por una parte, creen un clima general de respeto y deportividad en la entidad y, por otra, actúen de forma rápida ante cualquier incidente que sea contrario a este clima y a los valores de la entidad.


- **Acción sencilla:** exigir un comportamiento adecuado ante cada caso de protesta o falta de respeto que detecten en su entidad por parte de las familias, personal técnico, deportistas u otros integrantes de la entidad y, en su caso, aplicar el régimen disciplinario que se tenga aprobado.
- **Acción comprometida:** impulsar y realizar otras acciones encaminadas al fomento de la deportividad en el seno de la entidad.



RECURSOS

- ➔ **Campaña “El Insultar se va a acabar”**
- ➔ **Protocolo de fomento del respeto en las gradas de deporte escolar (texto)**
- ➔ **Protocolo de fomento del respeto en las gradas de deporte escolar (vídeo familias)**
- ➔ **Protocolo de fomento del respeto en las gradas de deporte escolar (vídeo árbitros/as)**
- ➔ **Guía Delegado/a de Familias**
- ➔ **Decálogo – cartel**
- ➔ **Decálogo – hoja de mano**

RESPECTO



ERRESPETUA

Goza dezagun elkarrekin kirolaz!
¡Disfrutemos juntos del deporte!